


ESKOLA AGENDA 21ERAKO GALDETEGIA



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. maila

Nerea Badiola

ESKOLA AGENDA 21RAKO INKESTA

Sekuentzia didaktikoak barnean hartzen dituen arloak: Hizkuntzak, Natur zientziak, Gizarte zientziak eta Matematika.

Gaia: Eskola Agenda 21rako inkesta.

Maila: 2. DBH

Saio kopurua: 6 saio

Proposamenaren testuingurua: Proposamen honetan, bai ahozko bai idatzizko komunikaziorako galderak ondo egiteko behar diren trebeziak lantzeko asmoz, ikasleek inkesta baterako galderak prestatuko dituzte. Posible bada, inkesta hau proiektu orokorrago batean integratuta egon beharko litzateke, Eskola Agenda 21aren barruan hain zuzen ere. Galdera aproposak eta egoki formulatuak sortzeko ikasleek, hizkuntz komunikaziorako gaitasuna garatzeaz aparte, ingurumen-arazoak ondo ezagutu eta ulertu beharko dituzte, eta ingurumenarekin erlazionatutako jarrerak eta ohiturak era kritikoan aztertuko dituzte.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (guztietan).
- ✓ Matematikarako gaitasuna (1., 3. eta 6. jardueran).
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (2., 3., 4. eta 7. jardueran).
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (2.,3., eta 7. jardueran).
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (1., 2., 3. eta 6. jardueran).
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (5.,6. eta 7. jardueran).
- ✓ Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna (1. eta 6. jardueran).

Helburu didaktikoak:

- ✓ Gure ohituren ondorioak ezagutzea.
- ✓ Inkestak beste testu-generotik bereiztea.
- ✓ Galderen ezaugarri behinenak bereiztea.
- ✓ Galdera-motak bereiztea.
- ✓ Sentsu kritikoa eta parte hartzea garatzea.
- ✓ Talde-lanean trebatzea.
- ✓ Inkesta ekoizteko IKTak erabiltzea.

Edukiak:

- ✓ Gizakiak ingurumenean duen eragina
- ✓ Galdetegien ezaugarriak.
- ✓ Galderen ezaugarriak eta galdera-motak
- ✓ Euskal deklinabidea: mugagabea
- ✓ A organikoa.
- ✓ Hondakinak murrizteko jarraibideak.
- ✓ Ekoizpenaren plangintza.
- ✓ Testuen berrikusketa eta zuzenketa.
- ✓ Ikaskideen iritziekiko errespetua.
- ✓ Norberaren ekoizpenaren berrikusketaren balorazioa.

Jardueren sekuentzia:

- a) Planifikatzea:
Ingurumen-arazo bat, hondakinak.
Zer egin dezakegu?
- b) Gauzatzea:
Galdetegiak aztertzen.
Galdera-motak.
Galdera zuzenak egiten.
Garapen iraunkorrerantz.
- c) Erabiltzea:
Galdetegia egiten.
Inkesta erabili!

Ebaluazioa

Adierazleak:

- Ea inkestaren ezaugarri behinenak bereizteko gai den.
- Ea lortu nahi den informazioaren arabera galdera egokia erabiltzeko gai den.
- Ea erregistro eta lexikoa komunikazio-egoerari egokitzeko gai den.
- Ea gramatikako oinarrizko arauak betetzeko gai den.
- Ea ortotipografiako oinarrizko arauak betetzeko gai den.
- Ea inkesta idazteko eta zuzentzeko testu-prozesatzailea erabiltzeko gai den.
- Ea taldekideen iritzia entzun eta errespetatzeko gai den.
- Ea ingurumen-arazoez ohartzeko gai den.
- Ea ingurumen -arazoak murrizteko zer edo zer egiteko prest dagoen.

Tresnak:

- ✓ Sekuentzian proposatuko direnak:
Hasierako ebaluazioa: 1. eta 2. jarduerak
Prozesuaren ebaluazioa:
Behaketarako txantiloia eta fitxak (3., 4. eta 6. jarduera).
Galdetegia berrikusteko txantiloia auto-ebaluatzeko eta koebaluatzeko (7. jarduera).
Amaierako ebaluazioa: azken ekoizpena.
- ✓ Irakasleak erabiliko dituen beste batzuk:
Prozesuaren behaketa eta jardueren berrikusketa.

1. JARDUERA. Ingurumen-arazo bat, hondakinak.

Hondakinak gure eguneroko jardueretan sortzen ditugun materialak dira, alde batera utzi behar ditugunak balioa edo erabilgarritasuna galdu dutelako. Baina, zenbat hondakin sortzen dugu gure etxeetan egunero? Eta kalean? Eta, zer egiten da hondakin horiekin guztiekin?

Galdera horiek erantzuteko, honako galdetegi hau beteko duzue, hiruko taldeetan. Gero, beste taldeen erantzunekin konparatu.

1. galdetegia

JARDUERA	HONDAKINIK BAI? ZENBAT?	ZER HONDAKIN MOTA?	ZER EGITEN DA HONDAKINEKIN?
Etxean			
Jatekoa egitean			
Jatean			
Edatean			
Garbitasuna egitean			
Telebista ikustean			
Kalean			
Lagunekin gaudenean			
Kirola egiterakoan			
Zinera goazenean			
GURE ARTEAN ASTERO _____ kg HONDAKIN SORTZEN DUGU			

Orain, taldeetan kalkulatu Europa, Estatu Batuak, India eta Txinako biztanleok, denon artean, zenbat zabor sortzen dugun urtero. Horretarako, testuan eta koadroan dauden datuak erabili beharko dituzue. A! Ez ahaztu kalkulagailua behar izango duzuela.

Estatubatuar batek **egunean bi kilo zabor** sortzen ditu, europar batek **kilo bat**, eta India eta Txina bezala garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanle batek, berriz, **100-500 gramo**. Gutako bakoitzak kilo bat inguru zabor sortzen du egunero. Gaur egun, eta gaikako bilketaren laguntzaz, % 20 birziklatu egiten da, baina oraindik orain % 80a zabortegira bidaltzen da.



1.100 milioi biztanle Indian	302.688.000 biztanle AEBetan
1.300 milioi biztanle Txinan	731.000.000 biztanle European

URTERO DENON ARTEAN

_____KG

SORTZEN DUGU

Kontuan izan, hala ere, munduaren erdiak sortutakoa baino ez dela hori, munduan guztira zenbat hondakin sortzen den kalkulatzeko beste erdiak (Australia, Kanada, Afrika...) ere ekoizten duena batu beharko zenukete.

2. JARDUERA. Zer egin dezakegu?

Bakarka irakurri honako testu hau. Ados al zaude dioenarekin?

HONDAKINIK ONENA SORTZEN EZ DENA DA

Gero eta gehiago birziklatzen dugula egia izan arren, gero eta hondakin gehiago sortzen ditugu. Horregatik hondakinen birziklapena eta berrerabilpenaz gain hondakinen murrizketan lan asko egiteko dago oraindik. Egunetik egunera gero eta gehiago kontsumitzen dugu, eta ondorioz hondakin gehiago sortzen ditugu. Ingurumenarekin arduratsuagoa den mundu bat lortzea posible da, eta gure esku dago ikasleei ingurumenarekiko errespetua eta ohitura iraunkorragoak irakastea.

Hondakinei dagokienez, birziklapena, berrerabilpena eta murrizketa landu behar ditugu. Eskolako Agenda 21ak zeresan handia du gai honetan, tresna ezin hobea delako ikastetxeetan hondakinen kudeaketa egoki bat egiteko.

Denon artean ikastetxeetan eta gure etxeetan sortzen ditugun hondakinei irtenbide bat eman behar diegu. Hondakin askok beste erabilera bat izan dezakete eta askotan behin betiko baztertu aurretik, beste pertsona batzuentzat erabilgarriak izan daitezke.

Denon ardura da eskolan, etxean zein kalean hondakin gutxiago sortzea eta horretara goaz!!!

Tontxu Campos

Zuek izango zarete zuen ikastetxeko **delegatu berdeak**; hau da, zuek aztertuko duzue ikastetxeko komunitateak (ikasleak, irakasleak, langileak, gurasoak) zer nolako ohiturak dituen hondakinak direla eta. Horretarako, galdetegi bat prestatu beharko duzue.



Baina lana bideratzeko, lehenengo eta behin taldean eztabaidatu galdera hauek:

Zuen ustez, zer dira galdetegiak?


Zertarako balio dute galdetegiek?

Zer jakin behar dugu galdetegi on bat ekoizteko?

3. JARDUERA. Galdetegiak aztertzen

Lehenengo, bakarka erantzun hemen dituzun 2. eta 3. galdetegiak; gero, taldekideek egindakoarekin konparatu.

2. galdetegia



3. galdetegia

ZURE HERRIA GUSTUKO AL DUZU?

Erantzun eta jakingo duzu!


1. Nola sentitzen zara herriaren erdigunetik paseatzean?
a)kitzikatuta b)pozik
c)urduri d)arduratuta
2. Zure iritziz, nolakoa da zure herria turistentzat?
a)kitzikagarria b)interesgarria
c)normala d)aspergarria dela
3. Zer nolako itxura dute kaleek?
a)oso garbia b)garbia
c)zikina d)kutsatua
4. Zenbat ikasle zarete gelan?
a) 20-30 b) 15-20
c) 10-15 d) 10 baino gutxiago
5. Herriko zenbat leku interesgarri bururatzen zaizkizu?
a) 15 baino gehiago b) 10-15
c) 5-10 d) 5 baino gutxiago
6. Zer espresio adierazten du ondoen zure herriari buruz duzun iritzia?
a)Kriston lekua da! b)Ez dago txarto.
c)Ez dut gustuko. d)Nazkagarria da!



Orain zenbatu zure emaitzak.

a=4, b=3, c=2, d=1

- 5-10 Ez zaizu zure herria piperrik ere gustatzen.
- 10-12 Leku atsegin eta normal batean bizi zara.
- 13-16 Zorionekoa zu! Zure herria atsegin duzu.
- 16-20 Primerako herrian bizi zara. Zorionak!



Orain, hiruko taldean, galdetegi ezaugarri behinenak aztertuko dituzue. Horretarako, erantsitako fitxa hau bete.

Oharra: lehen jarduerako galdetegia ere aztertu behar duzue.

BEHAKETARAKO TXANTILLOIA

EZAUGARRIAK	1. galdetegia	2. galdetegia	3. galdetegia
Galderak dira nagusi.			
Erantzunak inkestan bertan agertzen dira.			
Galderak eta erantzun posibleak koherenteak dira.			
Argazkiak agertzen dira.			
Galderak inkestaren gaiarekin koherenteak dira.			
Aditzak orainaldian daude.			
Aditz nagusiak bigarren pertsonan daude.			
Galdera gehienetan al partikula agertzen da.			
Galdera gehienetan izenorde galdetzaileak agertzen dira.			
Lexikoa jasoa da.			
Lexikoa lagun artekoa da.			
Inkestaren emaitza ageri da.			
...			

Jarraitzeko, taldean erabaki zein diren galdetegi baten derrigorrezko ezaugarriak eta zein ez. Amaitzeko, adostu zein izango diren zuen galdetegiak izango dituen ezaugarriak eta idatzi.

ZUEN GALDETEGIAREN EZAUGARRIAK

4. JARDUERA. Galdera-motak


Galdetegi batean, hainbat motatako galderak egin ditzakegu, lortu nahi dugun erantzun-motaren arabera, hain zuzen ere. Koadroan dituzue zuen galdetegian erabil ditzakezuen galdera-motak.

Bakarka, esan galdera-mota bakoitzaren erantzunak nolako ezaugarriak izan behar dituen. Gero, hiruko taldeetan adostu.

GALDERA-MOTAK	ERANTZUN-MOTAK
Zenbakizko galderak	
Aukera anitzeko galderak	
Egia ala gezurra galderak	
Erantzun laburreko galderak	

Taldean, bilatu mota bakoitzeko hiru adibide orain arte sekuentzian erantzun dituzuen hiru galdetegietan.

GALDERA-MOTAK	ADIBIDEAK
Zenbakizko galderak	1. 2. 3.
Aukera anitzeko galderak	1. 2. 3.
Egia ala gezurra galderak	1. 2. 3.
Erantzun laburreko galderak	1. 2. 3.



Orain, aukeratutako galderen ezaugarriak aztertuko dituzue eta koadro honetan jarri. Ondoren, jarduera hau talde handian zuzenduko duzue.

BEHAKETARAKO TXANTILLOIA

GALDERA-MOTAK	Zenbakizko galderak	Aukera anitzeko galderak	Egia ala gezurra galderak	Erantzun laburreko galderak
Nola dakigu galdera bat dela?				
Nola hasten da galdera?				
Izenorde galdetzailerik bai? Zein/zer/zenbat...?				
Beste partikula berezirik?				
Beste galdera-mota bateko galderak egiteko erabil daiteke?				

5. JARDUERA. Galdera zuzenak egiten

Banaka, erantzun honako galdera hauek eta gero, esan egindako galderak zuzenak diren ala ez. Ez badira zuzendu eta amaitzeko, taldekideekin bateratu erantzunak.

Zer garraio publikoa erabiltzen duzu? ZUZENKETA:	Ondo/txarto
Zenbat paper erabiltzen duzu? ZUZENKETA:	Ondo/txarto
Zenbat ikasleak doaz oinez ikastetxera? ZUZENKETA:	Ondo/txarto
Zenbat energia erabiltzen duzue etxean? ZUZENKETA:	Ondo/txarto
Zein toki duzu gustuko mendia, hiria, hondartza ala baserria? ZUZENKETA:	Ondo/txarto

ADI!!!

Euskaraz, inguruko erdarek ez-bezala, hiru taldetan banatuko ditugu izena (izen sintagma) numeroaren arabera:

- mugatu singular
- mugatu plural
- mugagabea (ez singular, ez plural dena)

Mugagabea ZER, ZEIN eta ZENBAT galdetzaileekin erabiltzen da:

Adib. : "Zein bideo ekarri duzu ?", "Zenbat haur ikusi duzu ?", "Zer hondakin mota da?"

Ohiko akatsa da "-a" organikoa edo itsatsia duten hitzak mugagabea gaizki deklinatzea, "-a" hori kenduz.

Adib. : * "Zenbat anai zarete?" Okerra
 "Zenbat anaia zarete?" Zuzena

1. galdetegiaren galderak ez daude guztiz formulaturik; taldean, galdera moduan formulatu eta mota bakoitzeko bi adibide sortu. Sortutako galderak azken galdetegirako baliokoak izango zaizkizue. Amaitutakoan, beste talde batekoekin trukatu, eta aztertu haienak ondo dauden.



ADIBIDEAK
Zenbakizko galderak 1. 2.
Aukera anitzeko galderak 1. 2.
Egia ala gezurra galderak 1. 2.
Erantzun laburreko galderak 1. 2.

Deklinabideari eta "a" itsatsiari buruzko sakontze ariketak egiteko honako helbidea hauetara jo:

<http://www.euskaljakintza.com/ariketak/deklinabidea/>

<http://euskaljakintza.blogspot.com/a-itsatsia/>

6. JARDUERA. Garapen iraunkorrerantz

Bakarka, irakurri testu hau. Gero, taldekideekin batera, bertan aipatzen diren ondo jarduteko arauak atera, hau da, hondakinen kopurua zein haiek eragindako kutsadura murrizteko ohitura egokiak. Amaitzeko, talde handian bateratuko dituzue.

Hondakinek jan ez gaitzaten

Nola murriz dezakegu hondakin-kopurua? Hasteko, **gutxiago erabiliz!** Eta gero, produktuaren diseinuan arreta jarritz. Hona hemen gure eguneroko bizitzan sortzen dugun hondakin-kopurua gutxitzeko hainbat era erraz:

Ezinbestekoak ez diren bilgarriak baztertu. Ahal dugun guztietan, berriz bete daitezkeen botilak eta ontziak itzuliz, eta itzul daitezkeen botilak erosiz. Berrerabiliz eta berriz betez ahal den guztia. Gutun-azalak, botilak eta plastiko poltsak bezalako artikulatuak berriro erabil daitezke. Eta dagoeneko erabiltzen ez dugun arropa benefizentzia zentroetara eramatea dugu; horrela, birziklatzeaz gainera, besteren batek gure arropa estimatuko du eta hartaz baliatuko da. Gauzak konponduz, zakarrontzira bota beharrean. Papera eta kartoia, ontzi-hondakinak (latak, plastikoak eta tetrabrik motako ontziak) eta botilak birziklatuz, bizi garen tokian gaiez gai egiten den bilketa ereduari jarraituz.

Zaborrarekin sekula nahastu behar ez diren hondakin toxiko arriskutsuak ere badira: adibidez, pilak, garbiketarako produktuak, disolbatzaileak, aerosolak, hodi fluoreszenteak, termometroak, erradiografiak eta beste. Gaiez gai bildu ohi dira, horretarako bereiziki jarritako ontzietan.

BALIABIDEAK AGORTUZ DOAZ

Munduak aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetako bat baliabideen kontsumoa nola murriztu da. Izan ere, urte bakar batean munduan kontsumitzen den petrolioa sortzeko, milioi bat urte behar izan zituen naturak. Eta noski, martxa honetan jarraituz gero, datuen arabera **60 urtetan petrolioa agor daiteke**. Gure ohiko energia iturriak –ikatz eta petrolioa- erregai fosilak dira. Hildako animalien eta landareen hondakinetatik milioika urte behar izan duen prozesu baten ondorioz sortu direlako deitzen zaie horrela.

Lurreko baliabide naturalak (erregai fosilak, ura, gas naturalak edo zuhaitzak, esate baterako) agortu ezinezko iturriak direla uste izateari utzi behar diogu. Eta horretan, birziklatzeak berebiziko garrantzia du. Gure baliabide naturalen horniketa amaitzerik nahi ez badugu, eguneroko bizitzan eta salerosketan ohiko jokabide bilakatu behar ditugu **berreskuratzea, berrerabiltzea eta birziklatzea**.

BIRZIKLATUTAKO PAPERAK

Birziklapena hondakin solidoak murrizteko era garrantzitsua da, produktu berriak egiterakoan hondakin horiek berrerabiltzen dira eta. Paper birziklatu tona bakoitzeko, 17 zuhaitz salbatzen dira, eta 21.000 litro ur aurreztu. Halaber, airearen kutsadura 30 kilogramo gutxitzen da, eta kontuan hartzeko hondakin-kopurua saihestu daiteke. Paper birziklatuari eta haren erabilerari lotutako ohitura onen ingurumen-abantailei buruz gehiago jakin nahi baduzu, www.reciclapapel.org begiratzea duzu.

<http://www.oarsoaldea.net/irudiak/Bizimodu%20iraunkorrako%20baten%20aldeko%20gida.pdf> artikulutik hartutako zatia.



ETA GUK ZER EGIN DEZAKEGU HONDAKINEK JAN EZ GAITZATEN?

7. JARDUERA. Galdetegia egiten

Dagoeneko aztertu eta landu dituzue galdetegiak, euren ezaugarri behinenei erreparatu diezue, baita hondakinen ekoizpena murrizteko zer egin dezakegun ikusi ere. Orain, ikastetxekoek nolako ohiturak dituzuen jakiteko galdetegia prestatzeko momentua heldu da. Horretarako, testu-prozesadoreaz baliatuko zarete; horrela, ekoizpenaren zuzentasuna, txukuntasuna eta erakargarritasuna bermatuko duzue eta.

Hiruko taldean, ekin galdetegia egiteari.

PROZEDURA

- Planifikatu zuen galdetegia
 - Zenbat galdera?
 - Eskolan dituzten ohiturei buruz?
 - Etxean dituzten ohiturei buruz?
 - Kalean dituzten ohiturei buruz?
 - Zer galdera-mota egingo dituzue?
 - Emaitzarik jarriko duzuen ala ez.
 - ...
- Idatzi zuen galdetegia testu-prozesadorearekin erabiliz.
- Erabili testu-zuzentzailea zuen ekoizpena zuzentzeko.
- Galdetegia prestatutakoan ikaskideenarekin trukatu eta beraiena aztertu berrikusteko txantiloia erabiliz.
- Ikaskideen lanean hobe daitezkeen alderdiak adieraziko dituzue. Ondoren, bueltatu ikaskideei euren galdetegia hobetzeko iradokizunekin.
- Ikaskideek zuen lana hobetzeko idatzitako proposamenak aztertu eta egin beharrezkoak diren aldaketak.
- Irakasleak erakutsiko diezue zuen lana bere balorazioa eta hobetzeko iradokizunak jasotzeko.
- Idatzi galdetegiaren azken bertsioa.

GALDETEGIA BERRIKUSTEKO TXANTILOIA	Bai ala ez?
Galdera nahiko daude.	
Galderak mota ezberdinetakoak dira.	
Aukera anitzetako galderetan aukerak egokiak dira.	
Galdetzaile egokiak erabiltzen dituzte.	
Etxean dituzten ohiturei buruzko galderak dira.	
Eskolan dituzten ohiturei buruzko galderak dira.	
Kalean dituzten ohiturei buruzko galderak dira.	
Akats ortografikorik gabea da.	
Aditzak egoki erabilia daude.	
Galderak gaiarekin koherenteak dira	
Mugagabea egoki erabiltzen dute.	
Galderen erregistroa egokia da.	
Galdetegia osotua eta erabilgarria da	
IRADOKIZUNAK:	

ORAIN, ERABILI EGIN DUZUEN GALDETEGIA!